

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BARRUNDIAKO UDALA

**Barundiako udalerrian garatu beharreko gizarte- eta kultura-arloko, kirol-arloko eta natura-ingurunea sustatzeko ekimenei dagozkien diru-laguntzen deialdian eskabideak aurkezteko epea luzatzea**

Alkate-Udalburuak, 2020ko maiatzaren 19ko 211 erabakiaren bidez, honako hau onartu zuen:

**LEHENA.** Barrundiako udalerrian garatu beharreko gizarte- eta kultura-arloko, kirol-arloko eta natura-ingurunea sustatzeko ekimenei dagozkien diru-laguntzen deialdian eskabideak aurkezteko epea luzatzea.

Epe hori COVID-19k eragindako pandemiaren ondoriozko azken alarma-egoera amaitu ondoren finkatuko da, eta hurrengo egunean 2020ko martxoaren 14tik maiatzaren 22ra arte galdutako egun naturalak gehituko dira, hau da, 70 egun natural.

**BIGARRENA.** Denen ezagutzarako deialdiaren oinarriak ALHAOn eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea; halaber, udaleko web orrian.

**HIRUGARRENA.** Ebazpen hau Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean argitaratzea.

Ozaetan, 2020ko maiatzaren 19an

*Alkatea*

**IGOR MEDINA ISASA**